

8.FUNTSEZKO JARDUERAK

Publiko mota ondo aukeratu behar dugu, egingo dugun inbertsioari etekinak ateratzeko.

Eskaintzen ditugun bi zerbitzu nagusienei erreparatuz:

JATETXEA

Lehenengo **kalitatezko karta bat eskaini** behar dugu, menuaren prezioa eta kalitatea bat etorriz.

Zerbitzari eta sukaldari profesionalak eta bezeroekin aurkezten duten jarrera ezin hobea izatean jarriko dugu arreta berezia langileak kontratatzerako orduan.

Giro lasaia eta atsegina lortu behar dugu, bezeroak gustora egoteko.

DISKOTEKA

Musika giro desberdinak sortu nahi ditugu, horretarako **DJaren** prestakuntza eta gaitasunak ezinbestekoak dira.

Lokalera hurbiltzen den **bezero motak aztertzea** eta beraien aisialdi denbora gure lokalean pasatzeko gogoak pizteko gaitasuna izatea.

Giroa lasaia eta istilurik gabekoa izatea funtsezkoa da, segurtasun neurrietan eta bezeroen portaera egokietan oinarrituta.

Gure helburua nagusia gure enpresaren izena eta ospea handitzea da, bezeroak erakarriz eta horretarako hobekuntzak eta beharrezko aldaketen aurrean aktiboak izan behar gara.